

LANBIDE HEZIKETA:

Zer da eta zertarako balio du?

Lanbide Heziketaren helburu nagusia lan munduan sartzea da. Lan-merkatuaren beharretara egokitzeko, lanbide-tituluen katalogoa sortu da. Lanbide Heziketa lanbide-arloetan antolatuta dago, eta arlo bakoitzak heziketa-ziklo kopuru jakin bat dauzka. Zikloek ekoizpen-sektore eta zerbitzuetako sektoreetan lan egiteko antolatuta daude. Gau egun 150 titulu baino gehiago daude.

Nola daude antolatuta Heziketa-Zikloak?

Heziketa-zikloak bi kualifikazio-mailan banaturik daude:

- **Erdi-mailako heziketa zikloak.**
- **Goi-mailako heziketa zikloak.**

Heziketa-zikloek bi ikasturte iraupena dute.

Ziklo bakoitzak hainbat **lanbide moduluak** ditu:

- Zikloko berariazko moduluak (Irakasgaiak).
- Lan-prestakuntza eta orientabidea. (LPO)
- Lantokiko prestakuntza (LP). Eskola ordu kopuru osotik 400-600 ordu eskaintzen dira lantokietan praktikak egiteko. Prestakuntza hori benetako lan-esperientzia da. Lanaldia gutxienez 5 ordukoa eta gehienez 8 ordukoa izango da.

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK:

- ✓ **Titulazioa:** Teknikaria.
- ✓ **Sartzeko baldintzak:**
 - Zuzenean: Bigarren Hezkuntzako Graduatu-tituluekin.
 - Proba bidezko sarbidea: zuzenean sartzeko baldintzak betetzen ez direnean, sarbide-proba bidez sar daiteke. Baldintza: gutxienez **17 urte** izatea proba egiten den urtean.

GOI-MAILAKO ZIKLOAK:

- ✓ **Titulazioa:** Goi-mailako teknikaria
- ✓ **Sartzeko baldintzak:**
 - Zuzenean: - Batxiler-titulua edukitzea.
 - Erdi Mailako Teknikaria titulua edukitzea.
 - Proba bidezko sarbidea: Baldintza: gutxienez **19 urte** eginda izatea proba egiten den urtean.